

NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

EUSKALERRIAN BARN

«Malatzako Loreak»

euskeraz Iruñean

Iruñeko «comisión de Pastoral Vasca» delakoak esaten diguzte aurten eta lehen biko aldiz Iruñean Ama Birginari eskainitako «Malatzako loreak» euskeraz eman go dira.

Egunero Alta Jesuiten Elizan arratsaldeko zazpietan euskeraz emandako Meza ematen da. Aurten eta euskeraz Meza honen ondoren Andre Mariaren Loreen otolitzak esango dira. Malatzako Lore hauen semea Juan

XXIII zenaren «Poen in terris» izeneko Enziklikaren alde izanen da, aurten Alta Seindu haundi zen harrek ezagun erazi zuenetik aurrera betetzen direlako.

«EUSKERA» Sariaren

garaileak: Sainstei

ela Irigaray jaunak

Iruñeko «Aurrezki Kutxa» («Caja de Ahorros» erderaz) Munizipalak bere ehun urte sortu zenetik ospatzeko Sa-

ri batzuk antolatuta zituen. Iruñean: Bata «Iruñea» izeneko, erderaz, gure Iruñea doakion gaia arturik. Beste bat «Erribera» zeritzana, erderaz ere bai, gure egoaldeko lurri buruzko gaia izanik; eta Iruñea «Euskerak» izena zuena. Azkenekoa euskeraz zan, ehun mila pezetakoa (100.000 pezetak).

Idazleak nafartarrak izan behar izaten ziren «Euskera» Sari berezi hontan parte hartu ahal izateko.

Iruñeko «Aurrezki Kutxa» Munizipalak Euskaltzaindiari (Euskal Akademiari). Euskal Sari honen irizpateak emateko Mahiburuakoa izendatu zetan eskatu zion. Gure Euskaltzaindiak lau Akademiak bi Euskaltzaindiak, eta beste bi Euskaltzaindiak (Baigorrikoa) eta Euskaltzaindiaren bigarrena Lehendakaria, Yon San Martin Elbarrekoa, Euskaltzaindiaren Idazkaria, Maria nola izena, Elizondokoa eta Pedro Diez de Ulzurrun Iruñekoak, Laguntzaileak.

Euskal Sari hontara zazpi euskal nafar idazleak beren lanak bidaltu zituzten. Lanak «holandesa» delako ehun orrialdetik gorako luzeraz izan behar izan ziren.

Mahiburuakoa Azken Erabakia hontako moduan gertatu zan:

Lehenbizikoa, eta irabazlea: Urdiain'go Erretore den José María Sainstei jaunak bere «Euskera» izeneko lanarengatik. Honek ehun mila pezetako Sari Nagusia bereganatu du.

Bigarrena: José Angel Irigaray sendagile gaztea gertatu da bere «Euskera eta nafarroa» deritzan lana irabazteko. Honek Sari berezi bat irabazi du.

Biel, Sainstei eta Irigaray lagunak, nore gora emenik eta zorionik beronenak biotzei.

KUSLE

E. ETXAMENDI abeslaria ta naparroa

Danak ba dakigu E. Etxamendi Ipar Euskalerriko abeslari onenetakoa degula. Asko abestutzen du ta oso ongi. Poza en pozik abesteko egunotan bere abeslariak abestien entzun nitan. Ezin aztu ta belarririk ezin kendu «Otsagabia» izeneko. Negar giroan entzun dutenetik mingarriena. Entzuterakoan negar egin bear. Jere-mias igarilearen mailakoak ditugu. Izena alaxekoa ere Nafarroa'n dagon erriak politenakoa bat. Gaia berriz ondo eukeratu; Otsagabia'n gertatutakoa negargarria bai da; Saraitu'ko biotzean euskaal amasa era bat gaitzen. Iruñea' abesti au agertu nien napartar guztiek, negar egin bear. Azkonaren entzera biotza urratzen bai du. Biotza urratu'ko lertu egin bear.

Otsagabia'ko gaia alaxekoa da, baiñan zergatik Nafarroa rekin nastu? Zergatik blek batean agertu?

Gaur Nafarroa'n arkitzen deguna, da beste euskaltzainak ikusten. Gaizki mintzo ba bera, zuzendu.

«Nafarroa a rotzuri» dio Etxamendik: Nafarroak oso ondo gorde du bere arnasa. Ikus gaur Diputazioak daukan nortasuna, ematen dituen urratsak. Bere eskuz, bere buruaren jabe dalako Nafarroaren alde beti jokatzen ari da. Orain Nafarroa'ko lege zarren alde; beti bere nortasunari esko begiraten diola.

«Arrotzurik», nundik? Nafarrak napa zaletasuna odolaren gorrik daramakite, nai deuzten muturrekoak gaitzen. Beste gauza bat ezin

BERTSOLARIAK

Bertsolarien dohainak arrigarriak direla ongi aski dakigu, bertsu bat moldatzea guretzat hain zaila zaiguna gure bertsolarien artean errega da. Hor gaitzeta beti bertsolarien artean, puntuak eta galak harkandak prestatzen eta bertsu bat ezin eginez ez bada ongi pentsatu ta ondoan paperean idatzita. Gure eskualdean Euskal-Herriko bertze leku guztietan bezala bada bertsolarien zaletasuna, gure eskualdean jendeak maite ditu bertsolariak. Hori gure bertsolariak bestak behar ginezke ongi izaindu eta jarraitu hortan esatu gabe.

Aurtengo Maiatzaren ere aurtengo urte horetan bezala bertsolariak beste bat egia gogo dugu, hortan lan hobiarik ari direlarik, bertsolariak jakin dezazuten errega daukuzte hori Elizondoko Antxitoneko trinketean izanen dela, Maiatzaren 27-an arratsaldeko hostak aldia eta bilkura hortan ari direnak izango direla: LASARTE XALBADOR, GORROTXATEGI eta IGARZABAL. Hiru lehebizikoa gure herrian aunitz aldiz ari izanak, ospe handiko bertsolariak eta oso ezagunak eta denbora berean maitatuak ere. Igazabal gaztea lehenbiziko aldia du honara etortzen dela, aunitz famatzen dute, oso ona izan behar du eta hortaz jendeak badu horri entzuteko nahikeria. Bertsolariak beste hau Nafarroako Diputazioak «Institución Príncipe de Viana» ren laguntzarekin egiten da eta hor biltzen dena Elizondoko Ikastolara izanen da. Hemen behar ditut agertu Mattin eta Azpillaga-ren arteko bertsu aito bat, behin batez Elizondoko Antxitonean eginak 1970-ko Maiatzaren 17-an.

MATTIN.—Ni pobre sortu izan naiz eta geroztik pobre gelditu, jatekoa ere gutti nuzen ta hartako ez naiz haunditu; ZU, Azpillaga, sostuna zera, halaxe zait idunitu; ni puska hobeki bizi niteke zure diruak banitu.

AZPILAGA.—Baiñan zuk, Mattin, arren atzazu eskatu horrelakorik; gizon txikia zera, legia, baina ez dago flakorik; gizon txikiak jaten ere ez du la gastatzen dirurik; len daukanakin ik aski dauk ta ze duk behar besterik.

MATTIN.—Ni eskoletan enaiz ibili gauza alniz ikasteko, eta gainera suertetik ez izan nik aberasteko. Borondaterik ba ote duk ik pixkat neri partitzeko? Karitatea egin behar duk zera irabazteko.

AZPILAGA.—Nik diru asko ta diru gabe dago onen boltxikua, baina aberats batena balno elalago du burua; mila pezetak dan bezelaxe estimatzen du dirua, pobre aln ondo bizi dan batek zertarako dik dirua?

MATTIN.—Ni beti hola ibiltzen balnaiz aberatsaren tentatzen, aberatsa hobeki dagola batere ez dut pentsatzen; dudan apurra parrantan beti gostura baitut gastatzen, eta hau berriz etxe-zukuan bere diruen kontatzen.

AZPILAGA.—Mattinek beti grifa hori du dakigu berak esanik; hork ez dio gorrotorikan horren txikia izanik; atzo egindako diru pixarrak gaur nolatan daukan janik, honen semiak ez dute honen dirua gastatzen lanik.

MATTIN.—Beñe dirurik ezpaitu gorde Mattin bizi den etxetik, hortaz oharu dira aspaldi semeak eta bertzik; nik beti aise iretsi ditut lanetik irabaziak, eta errexki kontatu ditut nik nere aitak utziak.

AZPILAGA.—Gizon behartsu deabrusko hau beti ari da tentatzen, ta liska bat asmatzen du nik ez dudala gastatzen; prafleak eta morja guztiek nerongana eskatzen, nik lanik asko bazedukit pobre guztia mantentzen.

MATTIN.—Gure aberatsa oral jua zuku prafle ta mojetaraino, nik berriz dotriñan ikasi dut horetarik egundaino, kamelu bat orratz-zilotik pasako dela aiaño, zu bezalako aberatsen bat zeruko atean baino.

AZPILAGA.—Zeruko atea horren errega dala al zak lurtu? horrek al balu patarrarekin bere muturra garbitu, lforik ematen ditzen guztia berea zurrupatze ita, alkoholatua lya hil zan nere diruak baitu.

M. IZETA

AXULAR SARIA

BEHARREZKO LAN BAT

Etxe batian zagon mutti bat eta nausiak erran zion mutti-

Marl: —Har zazu astoa eta paratu xalma eta alzkora eta gan

blar duzu ohianera egur itera.

Mutillak erran zion nausiarik: —Eztakit egur iten.

Nausiak erraten dio: —Zazi ohianera eta uyu egin hamar aldiz «Beharra, «Beharra».

Mutillak uyu egin du hamar aldiz eta ezta etorri «Beharra».

Orduan bera ari da egurra egiten, in du al zen bezala, astua kargatu du egurrez eta etorri da etxera.

Etzera etorri zelaik nausiak erraten dio: —Etorri da «Beharra»?

Mutillak erraten dio: —Ez nausia neonek egin dut.

Nausiak erraten dio: —HORI DA BEHARRA.

Sara Luisa MENDIBURU
8 urte Erratzeko Eskolako

GAIXTAKINA ETA NEKAZARIA

Gau batez nekazari bati ebatsi zioten etxean zuen begorrik hoberena. Gogoratu zitzaion bertze bat erostea. Joan da erostokira eta han ikusten du bere behorra eta aritu zen. Berehala hartu eta erran zuen:

—Hau nere behorra da, orai hiru egun eraman zataten.

Gaixtakinak urbidu eta erran zion:

—Gaizki zaudte zurea iduria izango da bainan urte bat huntan begor hau nere da. Berehala nagusiak begiak estali diozka eta galdetu zela begia duen okerra. Eta gaixtakinak ez lakinen erran dio ezkerria. Eta orduan iabeak:

—Gozurra diozu.

Gaixtakinak:

—O bai eskufa. Zerbait erran behar ta.

Orduan iabeak begiak agertu ta.

—Ezagun da garbi ebatsi duzula, begor hau ez da okerra ez eskutetik eta ez ezkeretik. Etorri denak eta ikusi egia den edo ez, nai dut nik lakitia hau gaixtakin bat dela.

lende guzta bildu zen eta uyuka hasi.

—Galdue zara, galdue zara.

Eta gaixtakinak itzuli behar izan zuen begorra bere iabeare eta gaixtakier haren zorra ordaindu.

J. MIGEL IRIARTE
10 urte. Arizkun-ko Eskolako

BEDAUX

SELECCION DE PERSONAL

Importante empresa

internacional de

Calefacción Eléctrica

precisa

Delegado Regional de Ventas

Para la Zona de Norte-Centro (Palencia, Burgos, Alava, Logroño y Navarra).

FUNCIONES:

Desarrollar la red comercial, impulsar y controlar los resultados, con responsabilidad y proyección.

SE DESEA:

- Profesional de altura con sólida formación básica y de Marketing.
- Experiencia e introducción en el mercado de calefacción eléctrica y/o electrodomésticos.
- Aptitud y dedicación para desarrollar la red comercial, impulsarla y controlar resultados.

SE OFRECE:

- Integración en empresa dinámica con amplios programas de investigación de nuevos productos.
- Puesto de responsabilidad con proyección futura.
- Formación específica a cargo de la empresa.
- Remuneración base de negociación 300.000 pta.

Escribir de puño y letra, detallando historial personal y profesional e indicando teléfono de contacto y referencia a:

BEDAUX ESPAÑOLA, S. A.

Referencia J.F. R. 384

Avda. Generalísimo, 30

MADRID — 16

Empresa encargada de la selección.

(Ref. Nal. 10.758)

Linde

Un nuevo concepto de frío para el hogar

- FRIGORÍFICOS
- ARMARIOS CONGELADORES
- ARMARIOS DE CONGELACION

Y además, los sensacionales modelos LINDE LDS 18/23 y LDS 16/18, con dos compresores y dos termostatos independientes, que combinan en un solo aparato frigorífico y congelador.



LINDE OFRECE UNA GAMA DE ONCE MODELOS DIFERENTES

DISTRIBUIDOR OFICIAL

CICLOS NOAIN, Príncipe Viana, 2
PAMPLONA

